

OF017

UDALBATZARI

AL AYUNTAMIENTO PLENO

**Saneamendu zerbitzua emateagatikotasak arautzeko Zerga Ordenantza**

**Ordenanza Fiscal reguladora de las Tasas por la prestación del Servicio de Saneamiento**

Diruzaintzako ondokoaren 2016ko azaroaren 22ko txostenak honako hau adierazi zuen saneamendu tasari BEZa aplikatzeari dagokionez:

El informe de la adjunta a Tesorería del 22 de noviembre de 2016, constata lo siguiente a efectos de la aplicación del IVA en la tasa de saneamiento:

*“Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren BEZaren Sekzioak informazio dokumentu bat idatzi zuen entitate publikoen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainketari buruz, eta joan den urriaren 28ko UDALGIDAn argitaratu zen.*

*“La Sección de IVA del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, ha elaborado un documento informativo sobre la tributación de las entidades públicas en el impuesto sobre el Valor Añadido, publicado en UDALGIDA el pasado 28 de octubre.*

*Beste gai batzuen artean, argitzen zuen saneamendu zerbitzua emateari (ur hornidura emateari bezala) Balio Erantsiaren gaineko Zerga aplikatu behar zaiola eta zerbitzu hori ez dagoela salbuetsita, baldin eta zenbait baldintza ematen badira.*

*Entre otras cuestiones aclara que la prestación del servicio de saneamiento(al igual que la de suministro de agua) si se dan una serie de circunstancias está sujeta y no exenta del Impuesto sobre el Valor Añadido.*

*Zerga horri buruzko araudiaren 7.8 artikulua xedatzen du ez direla Balio Erantsiaren gaineko Zergapean egongo honako hauek: “Administrazio publikoek zuzenean egindako ondasun- eta zerbitzu-emateak, kontraprestaziorik gabe edo tributu-izaerako kontraprestazioaren bidez egindakoak badira.*

*El artículo 7.8 de la normativa del Impuesto establece que no estarán sujetas al Impuesto sobre el Valor Añadido “ las entregas de bienes y prestaciones de servicios realizadas directamente por las administraciones Públicas sin contraprestación o mediante contraprestación de naturaleza tributaria.*

*Edonola ere, zergapetuta egongo dira sektore publikoko administrazioek, entteek, organismoek eta erakundeek ondoren aipatzen diren jardueren barruan egiten dituzten ondasun- eta zerbitzu-emateak:*

*En todo caso estarán sujetas al impuesto las entregas de bienes y prestaciones de servicios que las administraciones, entes , organismos y entidades del sector público realicen en el ejercicio de las actividades que a continuación se relacionan :*

*... b) Ura, gasa, beroa, hotza, energia elektrikoa eta gainerako energia-modalitateak banatzea”.*

*...b) Distribución de agua, gas, calor, frío, energía eléctrica y demás modalidades de energía”*

*Hori dela eta, 2017ra arte, Udalak ulertu du ur hornidurari BEZa aplikatu behar zaiola eta zerbitzu hori ez dagoela salbuetsita, baina saneamendu zerbitzuari ez zaiola zerga hori aplikatu behar.*

*Por este motivo el Ayuntamiento hasta el 2017 ha considerado que la prestación del servicio de suministro de agua está sujeta y no exenta del IVA y la prestación del servicio de saneamiento no sujeta al Impuesto*

*Hala ere, BEZaren Zerbitzuak txosten horretan argitzen du “BEZa aplikatzen zaion ura banatzeko jarduerak honako hauek hartzen dituela barne, horniduraz eta berariatzko ur banaketaz gain: uraren ziklo integrala deritzon horrekin lotutako eragiketa guztiak (estolderiak, ura hartzeko fasea,*

*Sin embargo el Servicio de IVA en este informe aclara que la “actividad de distribución de agua sujeta al IVA incluye además del propio suministro y distribución de agua en sentido estricto, todas las operaciones relacionadas con el denominado ciclo integral del agua (fases de*



*bai eta urez hornitzeko, ura edangarri egiteko, edateko ura banatzeko eta hondakin urak arazteko faseak ere); horrela, administrazio publiko batek ura banatzen eta urez hornitzen duenean eta bere kontraprestazioetan hornidura, saneamendu eta estolderia tasak sartzen dituenean, tasa horiek ere BEZa aplikatzen zaion oinarri zergadunean sartu behar dira; hain zuzen, administrazio horrek egindako uraren hornidurari eta banaketari dagokion oinarri zergadunean.*

*Horiek horrela, ur horniduraren zerbitzuari ez ezik, euri eta hondakin uren saneamenduaren zerbitzuari ere Balio Erantsiaren gaineko Zerga aplikatuko zaio, eta zerbitzu hori ez dago salbuetsita.*

*Ondorio praktikoetarako, saneamendu zerbitzuari BEZa aplikatuko zaiola eta zerbitzu hori salbuetsita ez dagoela interpretatzeak zera dakar: Udalak zergadunei dagokion BEZ kuota aplikatu behar izatea, eta saneamendu eragiketengatik jasandako BEZ kuotak kenkarietan sartu ahal izatea”.*

Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuko BEZaren Sekzioaren txostena ikusi ondoren, 2017ko tarifa aplikatzean, BEZaren zenbatekoa tarifan sartu da.

Zerga hori tarifan sartzeak ez die ekarri murrizketarik udal diru sarrerei; izan ere, aipatutako Diruzaintzako ondokoaren txostenaren arabera:

“Diru sarrerak gutxituko lirateke, baina gastu korrontea ere murriztu egingo litzateke; eta murrizketa horri 2017an egindako inbertsioek jasandako BEZ kuotak gehitu beharko litzaiatzkieke, kontzeptu horri dagokion BEZaren likidazioa dela eta.

Saneamendu tasak arautzeko Zerga Ordenantzaren eranskinean zergaren oinarri zergagarriari dagokion tarifa jartzea proposatzen da, eta horren gainean aplikatuko da une bakoitzean indarrean dagoen ehunekoa (gaur egun % 10).

Horiek horrela direla, Finantza Zuzendaritzak egindako proposamena aintzakotzat hartu eta hauxe da **OGASUNEKO ETA FINANTZETAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIAK** udalbatzari proposatutako **ERABAKIA**, Ogasuneko Batzordearen irizpena izan eta gero:

**LEHENA:** Onartzea saneamendu zerbitzua emateagatik Tasak arautzeko zerga Ordenantzaren Eranskin aldatua, azalpen zatian

*captación, suministro, potabilización, distribución de agua potable, alcantarillado, y depuración de aguas residuales), de tal forma que cuando una Administración Pública realiza la distribución y suministro de agua incluyendo en la contraprestación de sus operaciones, además de la tasa de suministro, la tasa de saneamiento y alcantarillado, éstas también deberán formar parte de la base imponible del suministro y distribución de agua sujeto al IVA que dicha administración efectúa.*

*En estas circunstancias, al igual que el servicio de abastecimiento de agua, el de saneamiento de aguas residuales y pluviales, también se encuentra sujeto y no exento del Impuesto sobre el Valor Añadido.*

*La aplicación práctica de considerar sujeta y no exenta del IVA la prestación del servicio de Saneamiento supone que el Ayuntamiento deberá repercutir a los contribuyentes la cuota de IVA correspondiente y se podrá deducir las cuotas de IVA soportado por las operaciones de saneamiento”*

A la vista del informe de la sección de IVA del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral, en la aplicación de la tarifa para 2017 el importe de IVA se ha considerado incluido en tarifa.

La inclusión del mismo en tarifa no ha supuesto merma en los ingresos municipales ya que según el informe mencionado de la Adjunta a la Tesorería :

“Habría una disminución de ingresos, pero también una reducción del gasto corriente, a la que habría que añadir además las cuotas de IVA soportado en las inversiones que se realizasen en 2017, por la liquidación de IVA correspondiente a este concepto.

Se propone reflejar en el Anexo a la Ordenanza Fiscal reguladora de las Tasas de Saneamiento la tarifa correspondiente a la Base Imponible del impuesto, sobre la que se aplicará el tipo impositivo de IVA vigente en cada momento, siendo actualmente el 10%.

En base a cuanto antecede, y a propuesta de la Dirección Financiera, **EL CONCEJAL DELEGADO DE HACIENDA Y FINANZAS** propone al Ayuntamiento Pleno que, previo informe de la Comisión de Hacienda, adopte los siguientes **ACUERDOS**:

**PRIMERO:** Aprobar la modificación del Anexo a la Ordenanza Fiscal reguladora de las Tasas por la prestación del Servicio de Saneamiento,



azaldukoaren arabera.

**BIGARRENA:** 2018ko urtarrilaren 1az geroztik indarrean izango den erabaki hau Gipuzkoako toki ogasunak arautzen dituen 1989ko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 16.artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidetzea; hartara, behin-behineko erabakia behin betikotzat hartuko da, baldin eta erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Donostian, 2017ko uztailaren 28an

OGASUN ZERBITZUAREN BURUA

Izpta.: Javier García Ramos

OGASUNEKO ETA FINANTZETAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA

Izpta.: Jaime Domínguez-Macaya Lournaga

descrita en la parte expositiva.

**SEGUNDO:** Tramitar este acuerdo a regir desde el 1 de enero del año 2018, conforme al procedimiento establecido en el art. 16 de la Norma Foral 11/1.989 de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, entendiendo que el mismo, de carácter provisional, deviene definitivo si no se presentan reclamaciones.

Donostia / San Sebastián, 28 de julio de 2017

FINANTZA ZUZENDARIA

Izpta.: Oscar Villasante Arbelaiz